

ELAKO NAZIO KONTSEILUAREN ADIERAZPENA

“Haserretzeko arrazoirik badugu”

ELAk salatu egin ditu Gizarte-Elkarriketarako Mahaiak uztailaren 21ean erabakitako akordioak. Akordio hauen xedea ez da euskal negozioazio kolektiboa “blindatzea” eta “desblokeatzea”. Aitzitik, bi asmo dituzte: lehena, erreibindikazio sindikal eta soziala indargabetzea, eta bigarrena, patronalari eta Eusko Jaurlaritzari bide ematea aukera ahal dezaten, euskal langileen botoari muzin eginda, akordioak norekin itxi, hots, solaskiderik otzan eta merkeena.

ELAk euskal gizarteari oro har eta langile-klaseari bereziki Eusko Jaurlaritzaren jokabidea salatu nahi dio, oso gogor gainera. Onartezina da Jaurlaritzak euskal gehiengo sindikalarerekin agertu duen mespretxua, gutxiengoak babestutako akordioen alde egin duelarik. Aldeen borondatearen autonomia errespetatzeak eskatzen du joko-arau demokratiko batzuk ere aintzat hartzea, erabakiak alde bakoitzaren gehiengoz har daitezen. Ez dago Lan Harremanen euskal esparrurik eremu sindikalean demokrazia errespetatzen ez bada. Eusko Jaurlaritzak, hain zuzen Arantza Tapia Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren ahotan esan duenez, “lortu behar da langileen ahotsa benetan ordezkatzuta egotea”. Argi dago dagoen ordezkaritza sindikala ez duela gustoko. Adierazpen horiek erabat patronalaren aldera lerratutako posizioa islatzen dute; hainbeste, ze gero eta zailagoa baita bereiztea sailburuak eta horrelako agintariek gobernu baten edo patronalaren izenean ari disren.

Akordioak sinatu dituen patronalak, azken bi erreforma laborekin lortu dituen abantailetak ziur, ukatu egiten du negozioazio kolektiboa baliagarri izan dadin lan-baldintzak hobetzeko eta langileen miseria hedatzea ekiditeko. Areago, Confebask beste erreforma bat eskatzen ari da.

Akordioak sinatu dituen gobernuak, berriz, bere ardurapean dauden eremuetan prekaritatea ezartzen du, eta horietan ukatu egiten du negozioazio kolektiborako eskubidea. Gobernu berak galarazi zuen, Confebaskekin elkar hartuta, Eusko Legebiltzarrerak ELAk eramandako herritar ekinbide bat aurrera atera zedin, honen helburua zelarik azpikontrata publikoetako lan-baldintzak okertzea eragozteko.

Akordioak sinatu dituzten gobernu eta patronala bat datoz hainbat kontutan; batetik, gizarte eredu injustua aldeztzen dute; bestetik, euren enpresa eremuan erreibindikazioak eta langile-klasearen nortasun kolektiboa indartzen dugun erakundeok ez dute lekurik. Eusko Jaurlaritza eta Confebask bat datoz tresna politiko guztiak patronalaren zerbitzura jartzeko helburuan: legeak, fiskalitatea, dirulaguntzak, hobariak, gizarte elkarriketarako mahaia, gutxiengoko akordioak...

Jaurlaritzarekin akordioak itxi dituzten patronalak eta bi sindikatuak Espainian sinatzen dituzten hitzarmenek euskal langileon askatasun sindikala galarazten dute, ezin dugularik erabaki non eta zer nahi dugun negoziatu. Confebask -CEOEn bitartez-, CCOO eta UGT Zapateroren erreforma laboralez baliatzen dira euskal eremuan negozioazio kolektiboa deuseztatu edo baldintzatzeko. Agerikoa da estrategia horren ondorioz gizartearen eta langileen txirotze larria datorrela. Inork ez ditu derrigortzen lege hori erabiltzera, baina ez diote uko egiten.

Akordioak sinatu dituzten bi sindikatuak, CCOO eta UGTk, finantzazio publikoaren behar handia dute. Bi sindikatuoi bost axola zaie langile-klaseari eragiten dioten erabakiak mugimendu sindikalarerekin kontsultatu ere ez izana. Gizarte Elkarriketarako Mahaia fartsa bat da, eta bertan ezikusienaren egiten da gobernuen erabaki antisozialekin; hartu dituztenekin eta hartuko dituztenekin (erreforma laboralez, pentsioenak, aurrekontu antisozialak, osasungintza eta irakaskuntzako murrizketak, fiskalitate injustua...).

ELAk bere ahal guztiak negozioazio kolektibo mamitsu baten alde erabiliko ditu, pairatzen ari garen prekaritate formula berrien aurkako borroka indartuko duena.

Horregatik, ELAk

- Mugimendu sindikalaren kontrabotere izaera berresten du. Hau da, gure ustez, erantzunik koherenteena botere politikoaren jokabidea ikusirik, enpresa munduaren nahietara guztiz makurtuta baitago.
- Lan egingo du lantokietan oinarrizko egitura sindikalak indartze aldera, nortasun kolektiboak eta solidaritatea sendotze aldera. Gero eta langile kopuru handiagoa elkartu eta antolatzea da, gaur, enpresarioen boterea mugatzeko modurik egokiena.
- Eusko Jaurlaritzaren egungo posizioari buruz ondorio politikoak atera ditu. ELAk Lan Harreman eta Gizarte-Babeseko Euskal Esparrua aldeztu du. Jaurlaritza honek ez du horretan sinesten; Confedebaskekin duen interes-aliantza medio espainiar eremua aplikatzen eroso dago. ELAk gogora arazi nahi du Jaurlaritzak eta EAJk beste garai batzutan jarrera arras desberdina agertu izan duela, eta hutsune hori sentitzen dugu. 1994an Madrilén Euskal Herriko negoziazio kolektiboaren alde jokatu zuten, estatizazio saio bat zetorrenean, eta lortu zuten euskal gehiengo sindikalak eragingarri izatea, batetik, eta gure lan-hitzarmenak babestea, bestetik. 22 urte igaro direlarik, Jaurlaritzak esaten du nahiago duela patronalaren eta gobernuaren beraren solaskide gisa gutxiengo sindikala, zeinak berton negoziatzea galarazten digun.
- Euskal klase politikoari galdegiten dio salatzen ari garen gertakari hauekiko sentsibiltatea izan dezala, eta gehiegikeria horren salaketa plazara deztatela, euskal langileak kezkatzen dituzten arazoak eztabaida politikoan ager daitezen.
- Berresten du lan egingo duela euskal gehiengo sindikala inoiz baino erreferentzialagoa izan dadin, arlo sindikal, sozial eta politikoan. Eusko Jaurlaritza eta Confedebasken arteko estrategiak ez du inolako jarrera anbiguotarako aukerarik uzten.

Bilbo, 2016ko irailaren 5a

